


**VITORIA
GASTEIZ**



INGURUMENEN ZINEMAREN ERAKUSTALDIA MUESTRA DE CINE DE MEDIO AMBIENTE



LUIS DE AJURIA ARETOAN

Azaroaren 14, 19, 21, 26 eta 28
Abenduaren 3
Ordua: 19:30etan

SALA LUIS DE AJURIA

14, 19, 21, 26 y 28 de noviembre
3 de diciembre
Horario: 19:30



Centro
de Estudios Ambientales
CEA
Ingurugiro
Galetarako Ikastegia

Asteazkena 14 miércoles

La tercera revolución
Silent Snow

34 min.
71 min.

Astelehena 19 lunes

A margen do Xingu

90 min.

Asteazkena 21 miércoles

Espui
Mother: Caring for 7 billion

61 min.
49 min.

Astelehena 26 lunes

Sobre ruedas, el sueño del automóvil
Stuff everywhere

56 min.
56 min.

Asteazkena 28 miércoles

La red nociva
Sobre la misma tierra

46 min.
76 min.

Astelehena 3 lunes

Paradise or Oblivion
Im fluss des Lebens

48 min.
70 min.

SARRERA INTRODUCCIÓN

“ERAKUSTALDIA” Festival Internacional de Cinema del Medi Ambient jaialdiko dokumental eta film laburren aukeraketa bat da; ingurumena eta gizakiak natur, kultur eta gizarte inguruarekin dituen harremanak dira jaialdiaren gai nagusia, eta ikus-entzunezkoen sustapena helburua.

Zinema gure gizartearen eta gure errealitatearen isla da gero eta gehiago. Zalantzarik ez dago tresna garrantzitsua dela, ez soilik denbora-pasarako, baita beste toki, jende eta errealitate batzuk ezagutzeko ere. Hortaz, zinemak osotasun baten parte garela eta egiten dugun orok pentsatzen duguna baino ondorio sakonagoak dituela konturatzeko balio behar liguke. Honek guztiak garrantzi berezia dauka ingurumenaz ari garenean.

Zinema eta Ingurumena, jaialdiak bi arte mota uztartu nahi ditu. Zimena: irudiak eta soinua erabiliz ideiak adierazteko artea. Ingurumena: inguruan daukagun oro, bai izadia zein gainerako gizakiak, bizitzaren artea alegia.

Sarrera librea aretoa bete arte.

“LA MUESTRA” es una selección de documentales y cortometrajes del Festival Internacional de Cinema del Medi Ambient, que tiene como tema central el medio ambiente y las relaciones del ser humano con su medio natural, social y cultural así como la promoción audiovisual.

El cine se está convirtiendo cada vez más en un espejo de nuestra sociedad y de nuestra realidad. Es sin duda una importante herramienta para, además de entretener, acercarnos a nuevos lugares, a nuevas gentes y a otras realidades y así enseñarnos y concienciarnos de que formamos parte de un todo y de que todo lo que hacemos tiene repercusiones que van mucho más allá de lo que nosotros creemos. Todo esto adquiere mayor relevancia cuando hablamos del medio ambiente.

Cine y medio ambiente, el Festival pretende unir estas dos formas de arte. El cine: el arte de expresarse utilizando imágenes y sonido, y el medio ambiente: todo aquello que nos rodea sea naturaleza, sean los otros seres humanos, es decir, el arte de la vida.

Entrada libre hasta completar aforo.

LA TERCERA REVOLUCIÓN

Tomás Martínez Rodríguez

Espainia / España

34 min.



Industria Iraultzatik gaur egunera arte, gure planeta erregai fosilez baliatu da mundua mugiarazten duen energia sortzeko.

Baina erregai horien erabilera intentsiboak gizateriaren historiako klima-krisirik larriena ekarri du berekin, energia-krisiaren oinarriak finkatzeaz gain. Horixe izango da hurrengo krisi handia.

Petrolioia agortzen ari da, eta, beraz, gure egungo bizimodua aldatzeko zorian dago. Gaiaren inguruan, zalantza betetako eztabaida konplexua piztu da. Hor daude, adibidez, energia nuklear polemikoaren inguruko ika-mikak. Baina, era berean, ingurumena errespetatzen duten energia-iturri berriak, batzuk ia ezezagunak eta potentzial handikoak, erabiltzeko aukerei ateak irekitzen hasi zaizkie.

Gizateriaren lorpenak zapuzteko arriskua dago, erabaki zuzenak hartzen ez baditugu. Planetaren etorkizuna eta zibilizazioaren patua geure esku daude, inoiz baino gehiago.

Desde la revolución industrial hasta nuestros días, el planeta se ha nutrido de los combustibles fósiles para generar la energía que mueve el mundo.

Los efectos de su uso intensivo han degenerado en una crisis climática sin precedentes en la historia de la humanidad pero además ha cimentado los pilares de la próxima gran crisis: la energética.

El petróleo está llegando a su fin y con él nuestra forma de vida. Esto ha dado lugar a un complejo debate lleno de incertidumbres que cuestiona el uso de fuentes energéticas tan polémicas como la nuclear, pero también abre el camino a nuevas fuentes generadoras de energía respetuosas con el medio ambiente, algunas desconocidas por el gran público y con un enorme potencial.

Nuestros logros como especie podrían verse malogrados si no tomamos las decisiones correctas. El futuro del planeta y el destino de la civilización están, más que nunca, en nuestras manos.

SILENT SNOW

Jan Van den Berg / Pipaluk Knudsen-Ostermann

Holanda

71 min.



Artikoko lautada zuriak naturaren edertasun birjinaren adibide garbiak dira. Oso gutxi dakite nola bizi ezerez amaigabe hartan. Baina hiltzaile isil bat Groenlandiako inuit herria suntsitzen ari da. Mundu osoko hondakin kimikoak hantxe pilatzen dituzte, ezkutuan, eta biztanleak pozoitzen hasi dira. Ozeanoko korronteen eta elurteen ondorioz, DDT eta bestelako pestizidak iparraldera iristen dira, eta gaixotasunak eta heriotza goiztiarrak sorrarazten dituzte. Silent Snow filmak inuit aditu talde baten espedizio arriskutsua erakusten digu, beren lurralde idorra leraz zeharkatzen duten bitartean. Horrez gain, Groenlandiako neska batek (Pipaluk Knudsen-Ostermann) munduko hainbat txokotara egindako bidaia eskaintzen digu. Bere herria isil-isilik hiltzen ari den kutsaduraren iturburuak aurkitzeko asmoz, hiru kontinentetara joan zen, eta toki guztietan bi eratako interes kontrajarriak aurkitu zituen: batetik, epe laburreko etekinak; bestetik, nekazaritzarentzat, industriarentzat eta osasunarentzat onuragarriak izan daitezkeen konponbideak.

Las blancas llanuras árticas son un claro ejemplo de la belleza virgen de la naturaleza: una nada interminable en la que solo unos pocos saben cómo sobrevivir. Pero un asesino silencioso está destruyendo la comunidad inuit de Groenlandia. Los residuos químicos de todo el mundo se acumulan aquí de manera invisible y envenenan a los habitantes. Con las corrientes oceánicas y unidos a la nieve, los pesticidas como el DDT viajan hacia el norte, causando enfermedades y muerte prematura. En Silent Snow, un grupo de expertos inuit se lanzan a una peligrosa expedición con trineos a través de su tierra yerma. Junto a la expedición polar, la película sigue a una joven de Groenlandia (Pipaluk Knudsen-Ostermann) en su viaje por todo el mundo para encontrar las causas de la contaminación que envenena silenciosamente a su pueblo. Su viaje la lleva a tres continentes diferentes, donde se enfrenta a intereses encontrados entre los beneficios a corto plazo y las soluciones sanas para la agricultura, la industria y la salud.

A MARGEN DO XINGU

Damiá Puig

Brasil

90 min.



Xingu ibaian barrena bidaiatuz, bi ertzak jendez gainezka ikusiko ditugu; bertan daramate bizitza osoa. Belo Monte zentral hidroelektrikoaren eraikuntzak guztiengan izango du eragina.

Altamira eskualdeko (Amazoniako) ribeirinho, indigena, nekazari eta jendearen kontakizunak entzungo ditugu, baita espezialisten iritziak ere, guztiak buru-hausgari konplexu baten zatiak baitira. Proiektu polemiko horren inguruko gogoeten bidez, eskualdearen eta Xingu ibaiaren ertzetan bizi diren lagunen etorkizun zalantzarriaren nondik norakoak arakatuko ditugu.

Viajando por el río Xingú encontramos a innumerables personas que viven en sus orillas, moradores de toda una vida que se verán afectados por la construcción de la hidroeléctrica de Belo Monte.

Relatos de "ribeirinhos", de indígenas, de campesinos, de la gente de la región de Altamira, en la Amazonia, así como de especialistas en la materia, forman entre todos este complejo rompecabezas. Reflexiones sobre el pasado oscuro de este polémico proyecto que intentan aclarar el futuro incierto de la región y de las personas que viven a orillas del río Xingú.

ESPUI

Anna Soldevilla
Espainia / España

61 min.

Bere arbasoen herrixkara itzultzen den emakume baten bidaiari buruzko filma. Herrixka Kataluniako Pirinioetan dago, eta, denboraren poderioz, izugarri aldatu da, bereziki konplexu turistikoa erraldoi bat eraikitzen hasi zirenetik: golf-zelaiak, eskiatzeko pista, bizitegi-eremua eta hotelak; 5.000 lagun baino gehiagorentzako tokia, guztira.

Espui es el viaje de una mujer que regresa al pequeño pueblo de sus ancestros en el Pirineo catalán. El paso del tiempo ha ido cambiando la imagen del lugar, sobretodo a raíz de la construcción de un macro complejo turístico con campo de golf, pista de esquí y una zona residencial y hotelera para más de 5000 personas.

**MOTHER: CARING FOR 7 BILLION**

Christophe Fauchere
AEB / EUA

60 min.

Biztanleriaren gai polemikoaz hausnartzen du, biztanleria-hazkunderaren eta gizateriaren egungo gizarte- eta ingurumen-arazorik premiazkoenen arteko loturak finkatuz. Beth, ama ezin maitekorragoa, haurren eskubideen aldeko aktibista da. Hamabi laguneko familia estatu batuar handi bateko kidea da. Bere familiak planetan eragindako ondorioak aztertu ondoren, Beth Etiopiarra joan da, mundu azpigaratuaren krisiak eta konponbideak ulertzen saiatzera.

Mother reflexiona sobre el polémico tema de la población estableciendo las relaciones entre el crecimiento de la población y los problemas sociales y ambientales más urgentes de la humanidad. En la película conocemos a Beth, madre amantísima, activista a favor de los derechos de los niños y miembro de una gran familia estadounidense de doce miembros. Tras analizar el impacto de su propia familia sobre el planeta, Beth viaja a Etiopía para entender las crisis y soluciones del mundo subdesarrollado.



SOBRE RUEDAS, EL SUEÑO DEL AUTOMÓVIL

Oscar Clemente Galán

España / España

56 min.



Mende bat pasatxo besterik ez izan arren, automobilak errotik aldatu du gure bizimodua. Zentzu askotan, motordun ibilgailuek pertsonak baino garrantzi handiagoa dutela dirudi: adibidez, hirietako eremu publikoen % 62 hartzen dute batez beste.

Filmak gizakiaren eta autoaren arteko maitasun-historiaren ondorioak erakusten dizkigu.

En poco más de un siglo, el automóvil ha transformado completamente nuestra forma de vida. En muchos aspectos, los vehículos a motor tienen prioridad frente a las personas, llegando a ocupar de media el 62% del espacio público urbano.


Esta película examina las implicaciones de nuestra historia de amor con el automóvil.

STUFF EVERYWHERE

Judith de Leeuw

Holanda

56 min.



Gauzak baliagarriak dira, bizitzan errazago moldatzen laguntzen dutelako. Gainera, poztasuna ematen digutelakoan gaude. Baina gauza gehiegi ditugu alde guztietan: etxeetan, kaleetan, itsasoan eta geure buruan. Denetik erosteko beharra sumatzen dugu, gauzak sobera ditugun arren. Judith de Leeuw errealizadoreak zenbat gauza dituen jakin nahi du. Zenbatu ondoren, etxean ez zaizkiola sartzen ikusten du.

Las cosas son útiles, nos hacen la vida más fácil y creemos que nos aportan alegría. Pero hay demasiadas cosas y están por todas partes: en nuestras casas, en las calles, en el mar y en nuestros cerebros. Nos sentimos obligados a comprar de todo cuando tenemos más que suficiente. La realizadora Judith de Leeuw quiere saber cuántas cosas tiene. Decide contarlas y descubre que no le caben en casa.

LA RED NOCIVA

Ariel Achutegui Suárez

España / España

46 min.



Wifi sistemaren eskoletako egungo ezarpenari buruzko dokumentala da. Plan Escuela 2.0. delakoaren nondik norakoak erakusten dizkigu.

Talde politiko eta sindikatuetako ordezkariak, guraso-elkartetako kideak, medikuek eta kaltetuek Interneteko konexio mota horri buruzko iritzia ematen dute.

La red nociva es un documental sobre la implantación actual del sistema wifi en las escuelas; el llamado Plan Escuela 2.0.

Representantes políticos y sindicales, asociaciones de padres, médicos y afectados ofrecen su punto de vista sobre este tipo de conexión a Internet

SOBRE LA MISMA TIERRA

Laura Sipán

Alemania

76 min.



Kolombia. Artoz, urrez, jukaz eta petrolioz betetako sailen artean bizi diren gizon-emakumeak lurrik, odolik eta etorkizunik gabe ari dira geratzen. Militarrek, paramilitarrek, aiztoak, motozerrak, sadismoa, bost milioi desplazatu, meatzarien, emakumeen eta nekazarien batasuna, kanporaketak, indarkeria, sikarioak, hiltzaileak, auzo marjinalak, loaldi eta esnaldiak, itxaropenak, ahantzurak, tragediak eta bizitzaren gorazarreak bizitza bizirik irauteko borroka bihurtu den honetan.

Colombia. Hombres y mujeres entre campos de maíz y de oro, de yuca y petróleo que sufren el despojo de tierras, de sangre, de futuro. Militares, paramilitares, machetes, motosierras, sadismo, cinco millones de desplazados, cooperación de mineros, de mujeres, de campesinos, desalojo, violencia, sicarios, asesinos, barrios marginales, el sueño y la vigilia, la esperanza, el olvido, la tragedia y el canto a la vida cuando la vida no es otra cosa que luchar para seguir viviendo.

PARADISE OR OBLIVION

Roxanne Meadows

AEB / EUA

48 min.



Balio sistemikoetan izandako aldaketen arrazoi nagusiak eta gure sistemaren sintoma kaltegarriak agerian uzten dituen dokumentala. Bideo bidez, egungo ezagutzekin bat etoriko den gizarte- eta ekonomia-sistema berria aldarikatzen du. Besteak beste, Jacque Fresco ingeniari soziala, futurista, asmatzailea eta industria-diseinatzailea azaltzen da; baliabideetan oinarritutako Ekonomia izena eman dio balizko sistema berriari.

Filmaren arabera, ezinbestekoa da politikan, legeetan, enpresen arloan eta "Sistemako" gainerako kontzeptuetan nagusi diren metodo zaharkituak bertan behera uztea eta metodo zientifikoa eta goi-teknologiak erabiltzen hastea, planetako biztanle guztien beharrei erantzun ahal izateko. Premia horren funtsak ez dira politika eta finantzen munduko eliteen iritzia, ezta demokrazia engainagarriak ere, planetarekin oreka dinamikoa lortzeko asmoak baizik, jende guztiarentzat oparotasuna bermatzeko oinarria izan daitekeelako.

Este documental detalla las causas principales de los desórdenes de los valores sistémicos y los síntomas perjudiciales que causa nuestro sistema actual. Esta presentación en vídeo aboga por un nuevo sistema socio-económico adaptado a los conocimientos actuales, con la participación de Jacque Fresco, ingeniero social, futurista, inventor y diseñador industrial, que lo ha bautizado como Economía basada en recursos.

La película detalla la necesidad de superar los métodos pasados de moda de la política, las leyes, las empresas o cualquier otro concepto del "Sistema", y de usar el método científico junto con alta tecnología para satisfacer las necesidades de toda la gente del planeta. No se basa en las opiniones de la élite política y financiera, ni en las democracias ilusorias, sino en mantener un equilibrio dinámico con el planeta que podría suponer abundancia para todos

IM FLUSS DES LEBENS

Margit Atzler

Alemania

70 min.



Naturaren, gizakiaren, politikaren eta ekonomiaren arteko orekari buruzko dokumentala. “Mundu askotako ibiltariak”, Gregor Sieböckek, “Patagonia Magikora” garamatza, Hidroaysén konpainiaren presa-megaproiektuan oinarrituz, hazkunde ekonomikoa bizi-kalitatearen adierazle bakartzat hartzen duen paradigma aztertzen. Gure gizarte-kontsumo globalean interkonexio konplexuak jaun eta jabe direla, politika- eta ekonomia-esparru batzuk erantzun bakarra ari zaie eskaintzen, nonbait, krisiak sorrazitako aldarrikapen ikaratuei: hazkunde materiala eta aberastasun finantzarioa.

Im fulss des lebens dokumentalak Patagoniako natura basatiaren edertasun ikusgarria erakusten digu. Bide batez, lurrarekin eta norbere buruarekin lasai bizitzea eta “bide propioa” hartzea erabaki duten batzuen adibideak ematen ditu ezagutzera, aldaketa paradigmatikoei ekiteko premia larria aldarrikatzeaz gain.

Im fluss des lebens es un documental sobre el equilibrio en nuestro planeta entre la naturaleza, el ser humano, la política y la economía. El “Caminante de muchos mundos” Gregor Sieböck, nos lleva a un viaje a la “Patagonia Mágica”, donde en base al megaproyecto de represas de la compañía Hidroaysén analizamos el paradigma del crecimiento económico como único indicador de la calidad de vida. Complejas interconexiones que entrelazan nuestra sociedad de consumo global, donde parece que dar ímpetu al crecimiento material y a la riqueza financiera constituye la única respuesta de parte de la política y la economía a los clamores sembradores de pánico respecto a una crisis.

Mostrando la increíble hermosura de la naturaleza salvaje patagónica y el ejemplo de algunas personas que están siguiendo “su propio camino” con el simple deseo de vivir en armonía con la tierra y consigo mismo, el documental Im fulss des lebens alude a la necesidad urgente de un cambio paradigmático.

